

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Omar Bongo Frantziako erregina- ren xefa hil da

Ekainaren 8an Bartzelonan hil zen Omar Bongo, 41 urtez Mendebaldeko Afrikako Gabonen presidentea egona. Inperio galduaren ametsetan bizi diren espainolek ez bezala, Frantziak kolonia sare zabala dauka munduan. Tartean “Frantziako” bataiatu dena. Bongo zeukan kapataz.

LAU HAMARKADATOKO MAITASUN interesatua eduki dute elkarrekiko Frantziak eta Omar Bongok, 73rekin hil berria den Gaboneko presidentea. Asteotan asko idatzi eta hitz egin da harreman horiez Frantzian. *Frantziako* bataiatu duten horretan –metropoliak gaur ere lehengo kolonia-ohiekin osatuta daukan sarean– paper berezia jokatzen du 41 urtez Omar Bongok. Izan ere, enpresagizon eta politikari frantsesen eskumakila izateaz gain, Bongok zuzenean esku hartzen baitzuen Frantziako Errepublikaren barrunbeetan.

Rue89 agerkari digitalak “Bongo eta Frantzia, berrogei urte kolpe gaiztoka” izendatu artikuluan bideo batzuk itsatsi ditu, liburu askok baino hobe argitzen dutenak buruzagi afrikarraren boterea. Lehen bideoa 1968koa da: Charles De Gaullek Parisen ongi etorria egiten dio orduan Albert-Bernard Bongo izena zuen presidentea berriari. Bigarrena 1970koa da eta harrera Georges Pompidouk egiten dio. Hirugarrena 1977koa da, Giscard D’Estaingren garaikoa.

Laugarren bideoan, 1984an François Mitterrandekin ageri da oturuntza egiten Gaboneko hiriburuan, Librevillen. Bostgarrena 1996koa da, Jacques Chirac presidentea zeneko. Seriea argazki batek

errematatzen du: Nicolas Sarkozy 2007ko uztailean Librevillen Bongorekin autoan jende oldearen erdian.

Sarkozyk presidentetzarako kanpainan, duela bi urte, esana zuen arras aldatu behar zuela Afrikarekiko Frantziaren politika, eta ez zuela diktadorerik edukiko lagun. Hautakundeak irabazi eta egun gutxitara, Gabonera egin zuen lehenbiziko bisita. Denak berdin segiko zuela seinale... eta Omar Bongok zeukan indarraren adierazle.

“Frantziarik gabe Afrika txoferririk gabeko autoa bezalako da. Baina Afrikarik gabe Frantzia, gasolaririk gabeko kotxea”. Formula horretan laburbildu zuen Bongok Frantziako erreginaren muina. Ekuazioaren bi zatietan eragin zuen 41 urtez, eta heriotza ez beste inor ez zitzaion gailendu.

Gabon herrialde txikia 1960an iritsi zen independentziara. Parisek Léon M’Ba onartu zuen lehenbiziko presidentetzat. 1967an hil zen M’Ba. Honen ordean, frantsesek hautatu zuten Frantziako armadan ofiziale izandako funtzionario gaztea, Albert-Bernard Bongo. 32 urterekin –eta bozketetan sikulusaltsa ilun asko egin ostean– lortu zuen lehendakari izendatzea.

1973an musulman bihurtu zen, Omar izena hartuz. Motibo sendoa zuen horretarako: petrolioaren lehen


shock famatuaren erdian, urte beltzean aberatsa den Gabon OPEPen sartu nahi zuen. Baita lortu ere.

Urte horietan Aljeriak bere petrolio nazionalizatua zuen eta frantsesek iturri ziurragoa behar zuten. Gabonen aurkitu zuten. Hortik aurrera garatu zen Omar Bongoren agintearen beste alderdia: metropolian norbait izatea.

Frantziako alderdiei lagunduz

2007tik aurrea hil arteraino auzibideetan ibili da Bongo Parisen. 33 ondasun zeuzkaten berak eta bere familiak (etxeak, hotel pribatu bat, apartamentuak...) presidente soldatarekin ere justifikatu ezinezkoak. Bongorekin batera beste lau presidentek zeuden auziperatzeko bidean: Kongoko Denis Sassou-Nguesso, Burkina Fasoko Blaise Compaoré, Angolako Eduardo Dos Santos eta Ekuatore Gineako Teodoro Obiang. Baina justu aurretik, epaileek dossierra itxi dute betiko.

Politikari askok arnasa hartu du Bongo epaituko ez dutela jakinda. Gabongo presidentek asmatu baitu alde askotara egiten joko. Laburbilduz: petrolioarekin eta beste lehengaiarekin Gabonek eskuratzen dituen diruak bere familiak kontrolatzen ditu, eta diru horren zati bat aspalditik erabili du Frantziako politikan esku hartzeko.





Lau argazkiotan *Françafrique*ko lau pertsonalitatekin ageri da Omar Bongo. Bernard Kouchner Frantziako kanpo arazoetako ministroak esan zuen "lagun bat" hil dela: berrikitan liburu batek salatu du Kouchnerrek Bongorentzako aholkulari lanak egin eta kobratu zituela. Jacques Chirac presidente ohiarekin dago goiko eskuinekoan. Eskuineko bezala ezkerreko, denei laguntzen zien hauteskondeetarako dirua –beltza, noski– luzatuz. Nicolas Sarkozy 2007an presidentetarako hauteskundeak irabazi bezain fite egin zion bixita Bongori, Librevillen bertan. Aurretik agindua zuen Afrikarekiko politika aldatuko zuela, diktadoreei ez ziela lagunduko, eta beste. Librevillera "lagun zaharraren aholkuak eskertzer" joan zela esan zuen Sarkozy; denborarekin Frantziako auzitegiek betiko itxi zituzten Gaboneko presidentearen kontrako dossierrak. Lerroon ondokoan, Kongoko lehendakari Denis Sassou-Nguessoarekin ageri da: Bongoren aitagarreba izana da.

Nicolas Sarkozyk Bongorekiko harremana esplikatu izan du esanez esker onez hartzen zituela Gaboneko politiko zaharraren aholkuak. Aldiz, Giscard D'Estaingek publikoki aitortua du *aholkuok* dirutan ere eman izan dituela Bongok. Giscardek esan dezake klarki... bera eskupekorik gabe utzi zuelako. Berriro presidente izateko lehian zebilela, Bongok Mitterrand sozialistari diru asko eman zion, Giscard enteratu, Gabonekoari esan eta honek aitortu egin omen zion: "Telefonoz deitu eta 'Nola jakin duzu?' esan zidan. Hor eten nituen harekikoak betiko".

Gaboneko petrolioak manejatzen zuen Elf-Aquitaine korporazioaren ingurumarietan hamaika eskandalo

piztu zen, klase guztietako politikoa zikindu zituztenak, izan sozialista edo izan Charles Pasqua bezalako estadista kixkalgaitzak.

Bitartean, bere zorupean aberastasun itzelak dituen Gaboneko herritarren ehunetik 70 txirotasunean bizi dira. Survie elkarteak behin eta berriro salatzen duenez, kontutan harturik biztanleko Barne Produktu Gordina Gabon 84. da munduko herrialdeen artean, baina giza garapenaren araberrako zerrendan 119. posturaino makurtzen da. 35 postu atzerago, horra Françafrique kontzeptuaren oparia gabondarrei.

Librevilleko agintariak buruhauste handiegirik eduki ez dezaten, 800 soldadu dauzka han Frantziak. Presidentearen zaindaritza ere frantsesen

esku dago. Frantziarren esku daude inbertsioen %80.

41 urte luzez agindu izanak adierazten du Omar Bongok esku ezker gozoa bezala eskuin bortitza ere errukirik gabe usatu zituela. Oposizio politikoa kate motzean lotuz eta petrolioak ekartzen dituen diruen erabileraren kontrol garbia eskatzen dutenak isilaraziz. Azkenean Gabonen Estatua eta Omar Bongoren familia nahasteborrasteen daude bilduta. Bestalde, Bongotarrek Frantziaren bezala munduan, paradisu fisikaletan batez ere, halako altxorak baldin badauzkate, proportzioan izugarriak izan behar dute korporazio frantsesen etekinak.

Azken urteetan konplikatu egin zitzaion bizimodua Bongori. Osasuna ahul, sendatu ezin zuen kantzer bat zela medio, eta gero eta ikerketa gehiago bere ondasunez. Frantziaren bertan irudia zikintzen ari zitzaion. Biktimarena egitea bururatu zitzaion orduan.

2007ko abenduan, agintera iritsi zeneko 40. urteurrenean, honela mintzatu zitzaion populuari: "Badakit gure errepideak, osasungintzako eta hezkuntzako azpiegiturak, gure garraiobideak... badakit asko hondatu direla urteotan. Gabon gaur egun ahultzen dute etnizismoak, klientelismoak, negozio errazen irrikak, ustelkeriak, gehiegizko politizazioak. Horra zerk gangrenatu duen aginte publikoa". Oposizioaren erretolika bereganatu eta kito. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

